

5. KANALAK

Balorezko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu.

Kanalen barnean, alderdi desberdinak bereizi daitezke: komunikazio kanalak, banaketa kanala eta salmenta-kanala. Gure enpresak internet bidezko komunikazio kanala erabiltzen du, bezeroarekiko. Hau da, pisua bilatzen duena eta pisua salgai jartzen duenen arteko harreman-puntuak lortuz. Horrez gain, pisu bila dabilzan gazteak batzeko aukera emango da, talde bat sortuz eta hauek komunikazioan jarritz. Kanal bat osatzeko, bost fase berezi zehaztu behar dira.

Hasteko, pertzepzioa; marketinaren eta publizitatearen fasea da. Bertan, gure enpresak eskainitako zerbitzuaren berri ematen da. Horretarako, Instagram aplikazioan kontu bat sortuko dugu, bezeroekin komunikazioa errazteko eta aplikazioari buruzko zalantzak argitzeko. Horrela, gure enpresak bezeroei, aplikazioa erosiko eta erabiliko duten gazteei, balio proposamenaren berri emateko modu erabilgarria izango da.

Bigarrenik, ebaluazioa kanala osatzeko beharrezkoa den beste fasea da. Bertan, bezeroek gure balio proposamena ebaluatzeko aukera izango dute. Gainera, aplikazioari buruzko deskribapena eta erabilpena irakurtzeko aukera izango dute. Gutxi izango balitz, aplikazioari buruzko eta bezero bakoitzaren esperientzian oinarrituta, iritzia eta balorazoiak emateko aukera emango da, bost izar bidez, App Store (Apple) eta Play Store (Android) bilatzaileetan, baita komentaketa idatziak ere.

Hirugarren fasea erosketari dagokio; salmenta prozesua: aukeratutako ondasun eta zerbitzu zehatzengatik trukaturako dirua adierazten du. Aplikazioa erosteko dirurik ez da behar eta lehen aipaturako bi aplikazio bilatzaileetan aurkitu ditzakegu, App Store edo Play Store. Izena bilatzailean sartu (Euskhabita) eta zuzenean eramango zaitu bertara, deskargatu eta gutxira, deskargatu ostean, mugikorrean izango duzu erabiltzeko prest.

Laugarren fasea, entrega da, baino gure enpresa aplikazio batean oinarritzen denez, bezeroarengana iristea eza da zehatza, baina aipatzekoa da deskargatu orduko erabiltzeko prest dagoela, arazorik gabe.

Bukatzeko, salmenta ondorengoa aurki ditzakegu. Bertan, bezeroari arreta eta salmenta osteko zerbitzuak eskainiko ditugu. Bezeroak aplikazio deskargatu orduko arazoren bat edo galdera dutenean edo edozein ailtasunen aurrean, aplikazioaren deskribapenean bezeroentzako zerbitzu bat prestatu dugu, lehenbailehen argitzeko eta hortaz gain, instagram aplikaziotik mezua bidaltzeko aukerak ere izango ditu.